

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu hau aurrera eramateko, hainbat funtsezko baliabide behar dira. Lehenik, baliabide fisikoak ezinbestekoak dira: txokoarentzako espazio bat, ondo hornitutako sukalde profesional batekin, sukaldaritzarako beharrezko tresnekin eta bezeroek elkarrekin jateko gune atsegina batekin.

Txokoarentzako espazioa nahiko handia izan behar da, sukalde on bat eta hainbat mahai handi behar ditugunez. Mahaiak gutxienez 8-10 pertsonentzako edukiera izan behar dute giro familiar eta lagunartekoak sortu nahi ditugulako. Esaterako, ezaugarri hauetako 5 edo 6 mahai edukitzea funtsezkoa izango litzateke gure zerbitzua erabat bere osotasunean eskaintzeko.

Bestalde, sukaldea baliabide ezberdinak izan behar ditu. Alde batetik, kalitatezko sutegiak, labeak eta parrillak eduki behar ditugu. Sukalde profesionalak platerak prestatzeko baldintza egokiak bermatzen ditu, eta sukaldaritzarako tresneriak bezeroei modu seguruan eta eraginkorrean lan egitea ahalbidetzen die. Jantokia funtsezkoa da esperientzia partekatua sortzeko, eta ikus-entzunezko baliabideek (musika, pantailak...) euskal giro kulturala indartzen dute.

Giza baliabideak proiektuan lan egiten duten pertsonak dira, eta haien lana funtsezkoa da esperientziaren kalitatea bermatzeko. Tokiko sukaldariak ezagutza tekniko eta kulturala ekartzen du, eta bezeroei euskal gastronomia tradizionala irakasten die. Gainera, bezeroekin harreman zuzena izateak esperientzia hurbila sortzen du. Laguntza-langileek antolaketa, bezeroarentzako arreta eta espazioaren mantentzea egiten dute, jarduera ondo gauzatzeko.

Baliabide ukiezineei dagokionez, baliabide hauek ez dira ukigarriak, baina oso garrantzitsuak dira proiektuaren arrakastarako. Euskal gastronomiaren eta kulturaren ezagutza da proiektuaren oinarri nagusia, eta horrek beste eskaintza turistiko batzuetatik bereizten gaitu. Errezeta tradizionalek eta istorioek esperientziari balio berezia ematen diote. Bestalde, proiektuaren marka eta irudia bezeroek esperientzia gogoratzea eta gomendatzea errazten dute. Webgunea eta sare sozialak bezeroekin harremanak mantentzeko eta erreserbak kudeatzeko tresna nagusiak dira.

Finantza-baliabideak proiektua martxan jartzeko eta mantentzeko beharrezkoa den dirua dira. Hasierako inbertsioa behar da espazioa egokitzeko, sukaldea hornitzeko eta materiala erosteko. Gainera, gastu arruntak estaltzeko dirua behar da, adibidez, tokiko produktuak erostea, langileen soldatak edo argindarra. Finantza-baliabide egokirik gabe, ezin da proiektua modu egonkorrean mantendu.